

AZPEITIA'TAR JULENE

(G. B.)

Euskaldunak barri atsekabetsua izan dogu antxiña ez dala: Azpeitia'tar Julene idazlea ta euskalzalea, euskaltzaiña ta irakaslea il zala.

Julene'k gure aldizkari onetan be idatzi eban, orain urte bete, gitxi gorabera.

Zumaia'n jaioa genduan, 1888'ko urtarrillaren 8'an. Len esan dogun lez, Euskaltzaindi'koa zan eta iñoiz «Arritokieta» ezizenaz idazten eban.

«Jakintza», «Euzkadi», «Euskera», «Egan», «Zeruko Argia», «Karmel» eta «Zer» aldizkarietan idatzi eban.

Guda-denporan Burgos aldean egon zan irakasle bezela, ango erri txiki batean.

Beti izan dau doai berezi bat umetxuentzako gaiak idazteko.

Berak idatzitako liburuen artean, oneixek dira garrantzitsuenak:

«Osasuna, merketza ta janaritze» (liburu onek Euskaltzaindiko sari bat lortu eban 1920'an). Beste idazlan batzuk: «Azeri jauna», «Amandriaren altzoan», «Umien adiskidia», «Zuentzat» eta abar.

Gipuzkoa'ko euskal irrati batzutan be egin eban lan. Julene buru argikoa zan eta erri-euskerearen maitale amorratua.

Julene'k itzi dauskun utsunea betetzeko, danok arduratu bear gara, bestelan gure euskerea pikotara doa.

Agur Julene eta lasai egon. Euskereari buruz zuk pentsatzen zenduan lez pentsatzen dauan jente asko dago oindiño eta lanean jarraituko dogu.

IBARRA'tar Berbarido'k

EUZKERA

EUZKERA... ze izkuntza ederra!
Bere samurtasunean gozoa eta bere gozotasunean maitekorra!

Bai! Benetan maitekorra gutzat!

Orregaitik, euskaldun guztiok gure elari bear dauan zabalkundea emotera bearturik gagoz.

Eta ori zelan lortzen da?

Zintzotasunik aundienaz, etxean, gizartean, eta, batez be, lagun-artean euzkeraz itz egiteko saiatuta. Tamalgarriz, erdera geiegi egiten dogu gaztelarrakin, lantokietan, jolastokietan

eta edonun, gure euskerea atzeperatuta.

Eta gero, euskerea gaitza dala eta mintzatzeko erreztasunik ez daukagula esaten dogu.

Jakiña! Euzkeraz itz eginda, gure nortasunari agerpena emoteko, gogorik ez dogulako eta zaila aurkitzen dogulako, alegintzen ez ba'gara, zer egin bear gogu euskaldunok?

Eta EUZKADI gure ama lurraren nortasuna nun gelditzen da?

Izan gaitezcan euskaldun jatorrak eta goratu dagigun beti gure izkuntza,

izakera ta oiturak, EUZKADI gure aberri maiteari zor jakon nortasuna, agerpena eta bear dauan zabalkundea emoteko, erriarentzt eleak garrantziarik aundiena dauala eta elearen aurka dagoana bere amaren aurka dagoala gogoraturik.

Ez aitzu egundo esaera au: Euzkerea aitzu ez daiten, erderaz itzik ez egin!

BADIOLA'tar Imanol'ek
(Ondarroa'tik)